

ERLIJIO-BIZITZA, LITURGIA... (ALDAKETA-HAIZEAK)

Markina-Xemeindik, berrogei urteko gaindegitik, gure erlijio-bizitzari erreparatu deusat. Une askotan ikuspegia mugatua, Artibai ingurukoa bakarrik dala emongo dau, baina neuretik, neure esperientziatik ikusita, benetakoagoa dirudi.

Niretzat ia betikoa dirudian egoitza honetara etorri barri nintzala, erlijio-bizitzan eta liturgian egoera zaharraren eta bariaren arteko zubia igarotzen genbiltzala begitandu jatan. Izan be, berezkoa zan hori: Vatikanoko II. Kontzilioaren ostean, mundu barrirako deia indartsu entzun ohi zan; ez erlijio-arloan bakarrik, baita gizarte-arloan be. Baina orain erlijio-arloa dot gogoan eta idazluman. Dana dala, lehengoak –erakunde, kofradia, mugimendu erlijioso, ohitura eta halakoetan– pisu handia eukan eta sustriak sakon.

Aldaketaren seinale agerikoena latinetik herri-hizkuntzetara igarotzea izango zan. Pauso latz hori nahiko ondo eta naturaltasunez emon zala esango neuke; ez gaztelera edo frantsesa lako hizkuntza nagusietara bakarrik, baita euskerara be. Hori argi dago aurreko eta ondorengo urteetan hainbat lan egin eben abade eta erlijioso euskaltzaleei esker izan zala. Herrian, fededunen artean, gogo bizia sumatzen zan. Beharbada, Bilbo-ko elizbarrutian Paulo Gulpide gotzain jaunaren aldetik euskerak ez eban liturgian sarrera handirik izango, baina behetik go-

rako indarra bizia zan, baita auzotik, Donostiako elizbarrutik, etorrena be. Zorionez, hango gotzaina, Don Lorentzo Bereziartua bidaniarra, euskaltzalea zan, pentsaeran lehengoan finkatua egoalako ospea eduki arren. Honek Manuel Lekuona eta euskera kontuan adituak ziran beste batzuegana jo eban, liturgiarako behin-behineko testuak euskerara itzuli egiezan. Bilboko elizbarrutian A. Lino Akesolok, lehentxuago Iratzeder-Lertxundi beneditarren lapurterazko Salmoak bizkaierara egokitu eta argitaratu zituanak, ziharduan mezako egunerokoa hemengo euskerara itzultzen. Karmelo Etxenagusia, Mikel Zarate eta abar zituan lagun. Elizbarruti bakoitzean ziharduen talde txiki horreek izango ziran gero sortuko zan Euskal Herri mailako liturgi itzultzaile taldearen hazia.

Bilboko euskaldunak, Gotzainaren borondaterik ezagaitik edo, ez eben halako zoririk izan. Euskera nekez eta ia tantaka sartuko zan Bilbo hiribilduko eta inguruko parroketan. Kristinau eta abade euskaltzaleen eraginez, kasu batzuetan Gotzainak jakin barik eta haren borondatearen gaintetik. Atzeko atetik...? Jose Antonio Retolazak San Antongo euskal mezaren historiaz eta sorreraz idatzi dituanak adierazgarriak dira¹.

Latinetik herri-hizkuntzetara egin zan jauziaz batera, eliz musika eta kantuetan igartzen zan alderik handiena.

Markinako Karmenen musikari on-onak ziran sasoi haretan: A. Emiliano (Julian Barandiaran) aurretik urte luzeetan eta hau hil zanean, A. Jose Domingo (Frantzisko Ugartetxea) markinarra. Biak musika erlijiosoan eta gregorianoan maisu handiak, A. Jose Domingo batez be. Liturgiako latinarekin batera, gregorianoa galduko zan beldur ziran gure karmeldar musikariak. Izan be, galera handitzat sumatzen zan. Ez, gure elizetako koru askotan kantatu ohi zan gregorianoak ez eukan zerikusirik benetako gregorianoarekin. Baina hainbat komentu eta monasteriotan entzuten zan kantu erlijioso finak adierazten gaitza

¹ *Kili-Kili*, 163-164 (1993-07-16)

dan sentimendua izten ebanik ezin ukatu. Besteak beste, Gari-
zumaren amaieran koruan kantatzen ziran *De Lamentatione Je-*
remiae profetae hareek, tristura-aire fin antzinatikoa bihotzean
izten ebanak eta egun handietako “sequentia” hareek betiko
geratuko jakuzan: *Victimae paschali laudes; Veni, Sancte Spíri-*
tus; Lauda, Sion, Salvatórem... Eskerrak emoteko himnoa *Te,*
Deum, laudamus eta batez be *Veni, Creátor Spíritus* ezin ahaz-
tuzkoak dira.

Kantu horrek, gregorianoak, latinarekin izan eban bizi opa-
roa euskerarekin be izan egian ahaleginak egin zituanik bazan.
Nikolas Hormaetxea “Orixe”k hainbat himno eta “sequentia”
jarri zituan euskeraz latinaren silaba berberak gordez. Oresa-
koaz gainera, nik dakidala, A. Emilianoren ahaleginak gogoan-
garriak dira. Euskerak azentu finko markaturik ez eukala eta,
biak ondo batuko ziralakoan egoan gure musikari eta euskal-
tzalea. Baina ez eban arrakastarik izan...

2004. urtean, A. Emilianoren jaiotzako mendeurrena zala
eta, haren jaioterrian (Eskoriatzan) eta Markina-Xemeinen egin
jakozan omenaldiekin bat eginik, *Karmel* aldizkariak berariaz-
ko zenbakia atera eban, A. Emilianori eskainia. Zenbaki horre-
tan, Anjel Barandiaranek, omenduaren loba eta musikari eta
gregorianoan aditua danak, A. Emilianoren ahalegin hori aita-
tzen dau eta kritikatzua egiten. Hona hemen hango atala lerro
honeetara ekarrita:

(...) bere euskaltzaletasunean izaera guztiarekin euskara
gregorianora ezin hobeto egokitzen zela defendatu zuen.

Aita Emilianok Misa de Angelis eta beste hainbat lan euska-
rara egokiturik dauzka. Baina, gai honetan, bere ideia eta la-
nak merezi duten begirune guztiarekin, nire desadostasuna
azaldu nahi nuke. Geroago nire arrazoiak aztertuko ditut. De-
na dela gai hauek berarekin elkarrizketa baten bidez eztabai-
datzea gustatuko litzaidake. Berarekin izaten nituen solasaldi
patxadatsu eta aberasgarri haiek ditut gogoan.

Ondoren, nire ustez, Euskarak Gregorianoan erabiltzeko dituen eragozpenak zehaztuko ditut:

- 1. Badira une batzuk hitza edo silabak notara egokitzen ez direnak. Neuma etenda gelditzen da eta silaba horrek nota berri bat jartzea eskatzen du.*
- 2. Beste batzuetan euskaratze horrek Latin eta Gregorianoaren artean dagoen lotura hausten du. Sarri melodiak egoera animiko bat adierazi nahi izaten du eta itzultzean egoera hori ez da berdin adierazten.*
- 3. Latin eta Gregorianoaren sinbiosia da aita Emilianok, PSALLITE SAPIENTER liburuan dioen bezala Gregorianoaren berezitasun garrantzitsuena. 56. orrialdean dioena literalki jarriko dut: Por el texto sagrado al que siempre le acompaña, y porque su fin primordial es mover los ánimos de los fieles a mayor devoción y santidad.*

Hauek dira nik Gregorianoa euskaratzearen kontra ditudan iritziak.

Dena dela silaba eta bertso berdinak dituzten kantak baleude, eta Gregoriano melodiara egokitzen direnak, ondo iruditzen zait Euskarara itzultzea.

Baina kontuan har dezagun Gregoriano melodiak Latinez kantatzeko eginak direla. Errespeta dezagun².

Gure karmeldar musikari biak, gregorianoan ez eze, beste-lako eliz musikan be ahalegin handiak egin zituen. Anjel Barandiaranek –beti be A. Emilianori buruz– hau esaten deusku aitaturiko idazlan horretan:

[19]65eko ekainean (...) Kontzilioa bukatu zen urtean, Euskal-Meza argitaratu zen; Bilboko Elizbarrutiko Epaimahaiak, Musika Sakratuko Batzordeari gomendatu zion. Meza hau euskaraz kaleratu zen lehendabiziko meza izan zen, eta garai bartan arrakasta handia izan zuen.

² Karmel, 2004-2 (229-231 orr.)

Meza hau ahotsetara herriarekin txandaka nahiz ahots bakarrera kantatzeko eran eginik dago. Lehiaketako deiari erantzunaz idatzi eban A. Emilianok. Nik sarri entzun izan dot, lehiaketako oinarrietan doinuak euskal kutsua izatea eskatzen zala, baina gehiago zehaztu barik. Gure karmeldarrak hori guttiz zorrotz bete eban, ez bakarrik bere konposizioei euskal airea emoten ahaleginduz, baita herri-kanten motiboak osorik tartekatuz be. Horretarako, *Flor de Canciones Populares Vascas* Jorge Riezukoak argitaratua erabili eban. Liburu horretan hainbat kanta datoz lapitzez eginiko gurutzetxu batez markaturik. Hareetatik batzuk bakarrik aukeratu zituan bere *Euskal-Mezarako*. Esaterako, Aintzan, “Haltzak eztü bihotzik” izeneko kantaren doinua hartzen da oinarritzat. Kredoan, “Kristo guziek dezagun”³ kantaren airea sumatzen da, baina tartean bakarrik kantatzen dauan ahotserako, “Kanta zagun guziek” izeneko Ama Birjinaren kanta ezaguna sartzen dau, egin-eginean be, Maria Birjinagandiko jaiotza aitutzen dan Kredoaren zatitxuan.

Meza honen zatirik ezagunena eta orain be sarri kantatzen dana Santua (sanctus) da; hau be, “Urr´erretun bat” izeneko Lapurdiko maite-kanta batetik hartua da.

Mezaren amaieran hilen aldeko otoitza egin ohi zan: erresponsua. A. Emilianorena barru-barruraino sartzen dana da. Horregaitik eta meza nagusien amaieran ohitura hori zalako, laster zabaldu zan inguruko parrokiatar. Dana dala, liturgia barrian hilen gomuta eta hareen aldeko otoitza meza barruan sartua dago-eta, erresponsua hiletetan bakarrik erabili izanak A. Emilianoren konposizio bikaina pixka bat baztertzera eragin eban. Gure Karmengo meza nagusian, 11etako mezan, urte luzeetan kantatzen jarraitu zan.

Kontzilioa amaitu barri *Euskal-Meza* lehenengo agertu izanak bere alde ona izan eban: behingoan zabaldu zala; baina,

³ Liburuan ohar hau dator: *Este bello himno se canta en San Juan de Luz en la procesión del día de Reyes.*

bestalde, mezako eguneroko testuen euskerazko itzulpena behin-behinekoa zan. Urte gitxi barru, behin betiko itzulpen ofiziala etorri zanean, A. Emilianoren lan hori zaharkitua geratu zan testuaren aldetik. Gainera, egileak berak ez eban egokitzeko erarik izan, uste barik eta nahiko gazterik joan jakun-eta. A. Jose Domingok egin eban egokitze-lan hori. Holan, Santua (sanctus) testu barrira egokiturik kantatzen da Lea-Artibai inguruan, baina beste toki batzuetan lehengo-lehengoan, testu zaharreakin entzun izan dot...

A. Jose Domingo musikaz maitemindua ezagutu genduan. Musika bere bizitza eban, bere arnasa. Zahartzaroan be, umetxu baten antzera, ametsez beterik ziharduan. Musikarako gogoz harengana hurreratzen ziranak nekez egingo eben atzera. Batez be ume eta gaztetxuengan su hori isiotzen ekian. Beti egoan prest halako abesbatza, halako koru edo taldearentzat zer edo zer sortzeko edo egokitzeko. Haren dohain handietariko, doinu barriak sortzea baino, harmonizatzea zala esaten eben. Hemen erlijioaz dihardugu; Vatikanoko II. Kontzilioaren ostean, eliz musikan sumatzen zan barritasuna agertzeari ekin deusagu. A. Jose Domingok *Meza Barria* egin eban Markinako Karmenen, A. Emilianoren *Euskal-Mezarekin* batera, oso kantatua eta ezaguna zana. Gogoan dot, gainera, Gabonetan zortziko airea eukan kanta dirdaitsu bat kantatzen ebala ahotsetara haren koruak. *Abenduko illaren ogeta lauean* hasten zan; ez dakit berak sortua dan ala ez; baina berak harmonizatua eta bere koruarentzat ahotsetara egokitua bai behintzat. Berberak sorturiko *Aintza ta aintza zeruetan / Gloria a Dios en las alturas* gabon-kanta zoragarria be kantatzen zan; gure elizan euskeraz beti.

Salmoak eta *Meza Santuko Doiñuak* izan ziran lehenengo aldi haretako gauzarik barrienak. Salmoak, irakurgaien artean ez eze, mezaren hasierako, jaunartzeko nahiz amaierako kantu legez be erabiltzen ziran. Hareetariko batzuk oso ezagun bihurtu ziran: “Alkartu danok”, “Kanta Jaunari lur guztia”, “Jauna dot Artzain”...

Bien bitartean, Euskal Herriko musikariak baziharduen lanean mezako testu ofizialarentzat doinu barriak sortzen. Askoren artean sorturiko doinuetatik ustez egokienak aukeratu ziran eta holan azal berdedun partitura antzeko liburua argitaratu zan: *Meza Santuko Doiñuak*. Bilboko elizbarrutian Derioko Seminarioan izan zan horren aurkezpena. Ahots gozoa eukanez, Ramon Mendizabal abade markinarrak kantatu zituan hainbat zati aurkezpen-ekitaldi haretan. Lontzo Zugazagaren ahots zolia be entzun genduan. Mezaren zati guztiak ez eben harrera bera izan ondorengo urteetan. Esaterako, hasierako agurra: “Jesukristo Gure Jaunaren grazia...”, “Sinisten dot, sinisten dot” eta batez be “Gure Aita” izango ziran goratuenak.

Gogoan geratu jakun eta sasoi haretan durundi handia atera eban A. Paskual Barturen pasiotarrak eginiko *Euskal-Mezak*, Galdakaoko Andra Mari eliza erromanikoaren irudia diskoaren azalean dauanak. Ahotsak ez eze, instrumentuak be ugari sartu ziran meza honetan; honeen artean, alboka. Herri-otoitzean Xalbador bertsolariak esku hartzen dau zortziko txikiko doinu polit baten hiru bat bertso kantatuz.

Ondorengo urteetako emaitza be ederra izan zan. Olerkari batzuk ekin eutsen musikariekin batera, edota askotan musika eta letra egile berak eginak izaten ziran. Juan Mari Lekuona, Xabier Amuriza, Lino Akesolo eta Mikel Zarate agertu ziran, beste batzuen artean, eliz kanta barrien plazara. Juan Mari Lekuonak bertsolari doinuaz eginiko jaunartzeko bertso hunkigarriak agertu ziran eta laster baten zabaldu Euskal Herriko elizetara: *Azken Afari ezkeroz, Jauna*. Xabier Amurizak damu-otoitzetarako zortzi silabako laukoak egin zituan: *Zabaldu egizuz, Jauna, / zure errukizko ateak*. Lino Akesolok herri-doinu zahar bat erabiliz hilen aldeko otoitzak sortu zituan: *Eskatu daigun bilaren alde*. Mikel Zaratek bere bizitzako azken urteetan mezako zati guztietarako kanta egin zituan Juan Jose Elezkanorekin elkarlanean, euskerazko eta gazteleraazko testuekin. Baina, lehenago, meza-sarrerako kanta guztiz egokia sortu eban: *Zein gozo ta eder dan anaiok alkartu*. Ziur asko, latinezko ec-

ce quam bonum izango eban gogoan hori sortu ebanean. Orain be sarri kantatzen dana da.

1972ko urtarrilean *Gora Jainkoa* izeneko kantu-liburu ederra argitaratu eban Euskal Herriko liturgi batzordeak, kanta zahar eta barriz horniturik. Geroago, 1984an, argitaratuko ziran *mezaren eguneroko doiñuak* eta urte berean *Gora Jainkoa-2* eta *Gora Jainkoa-3*.

Eliz kantuei buruzkoa amaitzeko, hasieratik gogoko izan ditudan bi edo hiru eta azken orduko bat aitatuko ditut: *Jesus Munduko Argia; Jainko gizon eginari; Bai eskerrak emon zeru-lurretan*. Hirurak jaunartze ondoren kantatzekoak batez be. Azken ordukoa, ostera, jaunartzean kantatu ohi da: *Jauna, Gure Jainkoa, bedeinkatua zu...* Hiru ahapaldi dira, bakoitza Hirutasunaren Pertsona banari eskainia. Izatez, Xabier Letek eta Maria Lourdes Iriondok plazaratu eben kanta baten doinua da: *Izotz ondoko eguzki* (Lizardiren olerkia), baina eliz kanta izateko hitzak aldatu dituana.

Liturgiarako hainbat lagungarri

Gotzaindegitik paper-zorro antzeko batzuetan banatzen ziran liturgiarako lagungarriak: eguneko gaia, homiliarako ideia nagusiak eta Jainko-Herriaren otoitzak etozan paper-zorroan.

Markina-Xemeingo kristau-elkartean sarri batzartu ohi zan talde bat sortu zan. Hasieran oso gitxi izango ziran; baina pixka bat geroago, erlijio gaiez arduraturik egon eitekezan pertsona eta taldeei dei eginik, erantzun ona izan eban eta gela ha bete-bete egiten zan. Gu be han izan ohi ginan. Kristau-talde batzuetako ordezkariak, herriko kultura-elkarteetako ordezkariak, irakasleak, abadegaiak eta abar.

Hasieran, batzar hareek, ondo egituratu bakoak zirala zirudian. Aldaketa eta ia haustura giroa sumatzen zan. Elizan, us-tez, ibilbide barriaren zer edo zer markatu edo eratu nahi zan. Vatikanoko II. Kontzilioak iraun eban sasoiari eta batez be on-

dorengo urteetan seminarioetan eta abade gazteen ingurumarian behin eta barriro esaten zan latinezko esaera hau: *Recedant vetera; nova sint omnia*; hau da: baztertu beitez zaharrak; gauza guztiak barri izan beitez. Esaldi honek durundi eta eragin handia izan zituan. Gizarte mailan lehertu beharrean zan aldaketa bazetorren kristau-girora be. Zelan edo halan, guztia eraberritu nahi zan. Lehengoa, iraganekoa –askotan baliokoa zan ala ez begiratu barik– baztertu. Gure eliz batzar honeetaraino heldu zan kostata ahala kostata eraberritu beharreko haize hori.

Batzar honeetako partaideetariko batzuk herriko eta Elizako indar biziak ziralako uste sendoa euken. Zein erraz sinisten dogun gu geu garela munduaren ardatza...! Oraingo ikuspegitik, Beheko Mojak, kontenplazio-bizitzari emonak, zirala Elizaren harri biziak esango neuke, edota guztiok ginala, nor bere bizieran. Baina sasoi haretan mugimenduaren eta eraberritu beharraren zurrunbiloan genbiltzan.

Domeka eta jaiegunetako Eukaristiak eta kristau-formazioa ziran gehien arduratzen ginduezanak. Eliz kantak, Jainko-herrriaren otoitzak, irakurgaiak eta gainerako lagungarriak hemengo eliztarrentzat egokitu beharra. Gotzaindegitik etozan lagungarriak ez ziran jasoriko eran erabiltzen, ikutu eta aldaketa ugari eginda baino.

Gure eliztarren kristau-formazioa zan batzar hareetako kideen beste ardua nagusia. Han batzen ginanok geure burua jantziago ikusten genduala esango neuke... Gainerako herritar gehienak umetan ikasiriko dotrinaz gainera, aukera handirik ez eben izan; domeka eta jaiegunetako homiliak, garizumako eta egun berezietako sermoiak baino ez zituen entzungo; horreek ziran batzar hareetan behin eta barriro aitatzen ziranak. Eliztar multzo handi horren aukera ia bakarra Kristoren mezuaz euren burua pixka bat eskolatzeko, domeka eta jaiegunetako homiliak zirala uste zan. Ondorio horretara heldurik, zer edo zer egin behar zala pentsatu zan. Zer? Gotzaindegitik jasoriko paperak esku artean zirala, homilien eskemak landu-

ko zituan taldea eratu zan. Homiliak, laburpen antzera, baina ia eginak ezartzen ziran eukaristi batzarraren buru izango ziranen esku. Taldeko kideak erne-erne egongo ziran Markina-Xemeingo elizetako homiliak entzuten. Hurrengo batzarrerako entzuniko homilien kritika zorrotza egin beharko eben. Kritika horren laburpena idatziz jaso eta bidaliko jaken elizetako buruei... Jokaera honek, bistan danez, jende asko mindu eban, eta bertan behera amaitu zan. Dana dala, ezin ukatu talde hareetan lan handia egiten zala eta, zuzen edo oker, baina borondate onez.

Bidea eginaz ikasten ei da eta hortik sortuko zan geroko Parrokiako Pastoral Batzordea. Honen ibilera ziurtatu eta bere onera etorriko bazan, hainbat gauza zuzendu beharko ziran; eginiko okerretatik ikasi. Goian esan dogunez, aldi honetan eten beharra edo haustura giroa sumatzen zan. Barritu behararren barritu beharraz, betiko bidetik zebiltzan abade eta erlijiosoen aurka kritikarik garratzenak entzun ohi ziran batzarleku haretan.

Hasieran haize barrien profeta legez agertu ziran gazte bat edo bi, euren "iraultza" egin ostean, ezkutatu ziran betiko; ez batzar hareetatik bakarrik, baita Elizatik be...

Aldaketaren zurrunbiloak izaturik edo, besteren bat be alde egiten ikusi genduan. Gure Don Elias Lasuen Markina-Xemeingo kristinauen artzain onak halako batzar baten agertu eban bajoiala. Bajoiala Markina-Xemeindik. Apal-apal esan eban, Elizak eraberritu beharra eukala, eta berak ez ebala ikusten bere burua gai eraberritze horren gidari izateko. Markina-Xemeingo parrokiaren bere-berea izan eban gaixoen zerbitzuan emon nahi zituala azkeneko urteak, baina Bilboko Gurutze Gorriko kapi-lau zereginen.

Gure txikieria eta ibilera okerrak gorabehera, Espiritu Santuak badaki Eliza bide onetik eroaten eta hainbat abade, erlijioso eta laikoren ahaleginak emaitza onik izan dabela esango neuke. Borondate ona dagoanean, gauzak onera etortzen dira.

Kristau-elkartearen formazioa

Kontzilio osteko urteetan, era batera edo bestera, hainbat jardunaldi eta hitzaldi eratzen ziran Markina-Xemeinen kristau-formaziorako, bai liturgiari eta bai bestelako erlijio-gaiei buruz. A. Juan Jose Nuñez sakramentinoa, A. Eujenio Agirretxe frantziskotarra eta abar nahiko ezagun bihurtu ziran 1970eko hamarkadan gure fededunen artean.

Lea-Artibaiko abade eta erlijiosoak, barriz, hilero izan ohi eben erretiro-eguna Karmeldarren komentuan. A. Arriola jesulaguna zan erretiro eguneko lemazaina. Ondarroako semea zalako berariaz sartu dot “lemazain” hitza. Biblian oso aditua eta gizon jator-jatorra A. Arriola. Unibertsitatean urte luzeetan irakasle izana. Vatikanoko II. Kontzilioaren mezu barria eta Biblia izaten zituan gai nagusia. Eskualdeko abade eta erlijiosoak hitzaldiak euskeraz nahi zituela ikusirik, borondaterik onenaz jarri zan horretara, nahiz eta gai hareek euskeraz azaltzeko ohi-turarik izan ez. Sabindar kutsuko euskera erabiltzen eban edota Olabideren Biblian datorrenaren antzekoa. Berba batzuk ahoskatzeko erak grazia handia egiten euskun. Gogoan dot, Xabier Amuriza abade egoala sasoi haretan Gizaburuagan eta Amoro-ton. Halako erretiro-egun baten geure artean izan genduan A. Arriolari entzuten. Bibliako gairen bat azaltzen ziharduala, *hibertarrak* erabili eban hebrearrak edo juduak esateko. Orduan Xabier Amurizak itaundu eutsan albokoari: *–Zer esan jok?* Besteak erantzun: *–Hibertarrak*. Eta Xabierrek: *–Ni “eibartarrak” esan daualakoan ñengoan...* Zertzelada xeble antzekoaz jarraituz, beste bat gogoratzen dot: erretiro-egun hareetan Karmengo komentuko jantoki luzean bazkaltzen genduan. Behin Aita Agirretxe be han zan. Eraberritzeko gogo handia eta zentzu kritiko zorrotza agertzen zituan. Jantokiko aurreko hormaren goialdean gurutzea egoan eta haren inguruan idatzkun bat latinez letra handiz idatzirik. Hau inoan: *AD MENSAM SICUT AD CRUCEM / AD CRUCEM SICUT AD MENSAM*. Hau da: mahaira gurutzeraz legez / gurutzeraz mahaira legez. Gure erre-zildarrak,

goiburu antzera jarrita egoan idazkia seinalatuz, esan eban:
Hori gezurra da...

1968ko azaroan Paulo Gurpide Bilboko gotzain jauna hil ondoren, Gotzain barria aukeratu arte, Jose Maria Zirarda jauna, aldi haretan Santanderko gotzain zana, izendatu eben Bilboko Elizbarrutiko Administrari Apostoliko. Honek, Elizbarrutiaren euskal alderdiko pastoraltzaren buru Julian Olazabalaga jauna izendatu eban.

Abade eta erlijiosoen formaziorako hainbat ekintza eratu ziran. Gogoan geratu jatan Begoñako Espiritualitateko etxean izan genduan egun osoko jardunaldia. Erlijio eta kulturako pertsona interesgarriak ziran han. Ez dot izenik aitatu, merezimendu bereko beste asko ahazturik geratu ez daitezkan. Baina bat nahitaez aitatu behar: Jose Maria Arizmendiarieta. Egund bete-betea izan genduan. Goizetik hasita gure elizbarrutian ageri ziran arazoak, ardurak, egoera; Euskal Herriaren egoera, giza eskubideak, gure kultura, euskera... gogoeta hareen galbahetik pasatu ziran. Ustez, guztiz aberatsa izan zan egund haretako jarduna. Halako batzar ireki baten, Elizaren eta Herriaren inguruko gaietan hainbeste jende batzea, berez be gauza handia zan. Gogoan dot, bizitzan asko ikusiriko abade agurgarri batzuk euren esperientziak agertu zituela, Elizan eta herrian diktadurapean bizi izanikoak. Abade eta erlijioso gazteok adidi eta mirespenez entzun genduzan.

Goian adierazi dogunez, Jose Maria Arizmendiarieta egund gonbidaturik, eta egund amaitu baino lehen han agertu zan zintzo-zintzo. Nik uste neban, ospe handiko gizona zan eta, berbetan etorri handikoa eta distiratsua izango zala, baina ez. Lau-lau eta berba gitxitan esan eban esan beharrekoa, baina argi. Bere-berea eban gaia: Kooperatibak. Elizaren doktrina sozialaren bidetik, herriaren aldeko sentimendua eta herriari laguntzea, mugimendu horren barruan ikusten zituand. Gehiago oraindino: herria maitatzeko eta bere burujabe egiteko biderik onena hor ikusten eban berak. Hori guztiori

bihotz-bihotzetiko berbaz agertu eban; ondo hausnarturiko esperientziatik.

Aldi haretan –1970eko urrian hasita– Jose Angel Ubieta Elizabarrutiko Bikario jaunaren eraginez, gure parroikia eta elize-tako pastoraltza elkarlanean egitea erabagi zan. Inguru honetan bizi ginan abade eta erlijiosoen ahaleginetatik emaitza hobea lortzea zan Bikarioaren asmoa eta, bidez batez, Elizaren gogoa zanez, lan pastoral bateratua egitea. Gaztelaniaz *pastoral de conjunto* esaten zan orduan. Berez ez eukan parrokiak tenpluari edo eraikin erlijiosoari lotuta zertan egonik. Parroikia harrizko etxeak barik, lekuan lekuko fededunak egiten eben; horregaitik, gure *kristau-elkarte*a esan ohi genduan batez be, *parroikia* esan ezker Xemeingoa ulertzen zan-eta. Hemen bizi ginan elizgizonak inguru honetako abade-taldea osotzen genduan eta, teorian, inguru guztiko fededunei erlijio-zerbitzuak eskeintzeko ardura geunkan. Praktikan, mugatuago ikusten genduan geure burua. Esaterako, Etxebarrian, hango bikarioak –Don Bernardino Barrutia arrasatearrak– bere erara gauzak egiten jarraitzea erabagi eban; trebea zan, izan be. Irakaskuntzan esperientzia handikoa, herriaren formaziorako *Gure Erria* orria, salmoen eta eliz kantuen liburuxka egokiak atera zitua-na. Bestalde, aspaldiko eliz tradizio aberatsak gorde eta jarraitzen zituan, esaterako, hileta-elizkizunetan⁴.

Beste horrenbeste jazotzen zan Karmengo elizan. Hemen tradizio guztiz aberatsak gordetzen ziran, betidanik Ordenaren iturri oparotik datozenak, belaunaldirik belaunaldi Karmeldarren elizetan landu diranak. Karmengo Ama, San Jose, Santa Teresa Avilakoa eta San Joan Gurutzekoa, Santa Teresatxu Lisieuxkoa eta Pragako Jesus Umearen inguruko debozioak eta espiritu-bizitza ezin baztertuzko ondarea ziran. Gregorianoaren, eliz musika zahar eta barriaren, gaia gorago erabili dogu nahiko zabal. Beraz, sentiberatasun horrekin, Ordenako tradi-

⁴ ik. LOBERA REVILLA, Anjel: *Historian zehar San Andres Etxebarriko elizarekin zerikusirik izan duten alderdi batzuk*, Karmel, 1998-3.

zioak albait ondoen gordez, Kontzilioaren esanetara apurka-apurka gaurkotuz joatea zan Karmeldarren asmoa.

A. Eujenio Agirretxe frantziskotarra aitatu dogu gorago. Hau 20. mendearen bigarren zatian Euskal Herriko elizetatik igaro diran sermolarietatik onenatarikoa genduan. Apostolu handia, Elizaren eraberritzeaz kezkatu bizi zana. 1970eko hamarkadan Durangon egoan eta sarri izaten zan hemen hitzaldiak egiten, kristau-formazioko jardunaldietan... Uste dogu, haren eraginez sortu zirala hemengo parroketan pertsona helduentzako katekesi jardunaldiak. Euskeraz eta gazteleraz egozan gai horreek. “Kontzilioko Katekesia” / “Catequesis Conciliar”. Aita Agirretxe Segoviako La Granjan “Cursos de Renovación Conciliar” hareetan izanikoa zan. Kontzilio aurretik “Ejercitaciones por un Mundo Mejor” eritxen. A. Lonbardi jesulaguna zan jardunaldi hareen aita. Gazteleraz material hori prest egoan eta hareek euskerara itzuli eta egokitzeko, Julian Olazabalaga eragile zala, Eubako Pasiotarren ikastetxean batu ohi ginan bost bat lagun: Eujenio Agirretxe eta Felix Bilbao frantziskotarrak, Julian Olazabalaga bera, pasiotar bat edo bi (Fermin Iraolagoitia, Martzel Andrinoa?) eta ni... Testuak banatu eta etxean egin ohi genduan lanik handiena. Euban gehienbat bateratu eta txukundu.

Gure parroketan sustrai sakonak zituen jai eta ekintzak ziran. Horregaitik esan dogu, erlijio-bizitzan eta liturgian egoera zaharraren eta barriaren arteko zubia igarotzen genbiltzala. Zubia igarotzen bai, beste alderako bidean, baina ustekabeen atzera begiratu eta abiapuntura be bihurtzen ginala esago neuke... Garizumako gogo-jardunak ez ziran alde batera itziko ezergaitik be; herri txiki eta auzoetan, besterik ezean, hiru egunekoak. Ia herri osoa aitortzera eta jaunartzera joateko egun bereziak ziran, antzinatik jarrita egozanak: otoitz-apostolutzako domeka, Errosarioko Amaren domeka, Aste Santua, Pazkoa, Gorpuzti eguna, Jesusen Bihotzaren eguna... Egun horreetan eta herrietako jaietan kanpoko sermolaria izaten zan, ia beti fraideren bat: karmeldarra, pasiotarra edo frantziskotarra.

“Mater et Magistra”, “Populorum Progresio”, Vatikanoko II. Kontzilioaren dokumentuak eta gizartean bertan pil-pil egozan pentsamoldeak eragin handia izan eben predikari gazte eta ez hain gazteengan. Izan be, diktadura, Euskal Herria betiko suntsitu nahirik, bere aurpegirik baltzenetarikoa erakusten ikusten genduan. Iraultza-deia entzuten zan herrian, egoera ezin jasane-kotzat joz. Jausi ziran alde bateko eta besteko batzuk. Odolez gorritu zan barriro gure lurra. Min genduan bihotzean herriaren egoeragaitik eta salatu egin behar zan. Geroago eta nabarmenago ageri zan bidegabekeria. Haren aurka ahotsa jaso beharrean izan ginan. Edonork ez eukan horretarako erarik. Dana zan debekua, bildurra. Guardia zibil eta poliziak hur-hurran zelatari. Salatariak gitxien uste zan lekuan... Lehenago batez be pekatua, ohitura txarrak, ibilera galduak gaitzesteko izaten ziran sermoiak, sasoi haretan batez be goikoen eta agintarien bidegabekeriak salatzeke abagune bihurtu ziran. Jainkoaren hitza azaltzeke une eta lekuan desegokia zirudian jokaera harek. Bai, kexu ziran batzuk horregaitik... baina orduko bidegabekeria agerian jartzeko ia zirrikitu bakarra zan. Biblian profetak agertzen dira hori egiten eta Jesusek berak be behin baino gehiagotan jaso eban ahotsa fariseuen aurka, aberats bihotz bakoen aurka, umei ikasbide txarra emoten eutsenen aurka...

Beraz, gure sermoi eta homilia askok Itun Zaharreko profeten antzeko hotsa euken. Hots garratz samarra. Horregaitik, era askotako entzuleak izanik, ez zan harritzekoa norbaiten salaketagaitik, sermolariak Gotzainaren aurrera agertu behar izatea. Haren aurrean agertu beharra ez zan ezer, harek emon ohi eban zentzagarri edo zigorra baino...

Pragako Jesus Umearen historiatxua

Aldi haretan –1966-1980.era bitartean– Pragako Jesus Umea sartu-sartua zan gure herriko umeen bihotzean. Andra Mariaren adbokazioak oso ugari dira Elizaren tradizioan. Dirudie-nez, fededunen debozioetan hainbat izen, leku, kolore eta

janzkeran agertu ohi da Jainkoaren Ama. Jesus eta santuen kasuan nekez ikusten dogu holakorik. Baina, kasu bitxia bada be, hor dogu Pragako Jesus Umea.

Izenak berak dinoanez, Pragan dau jatorria. Ahoz-ahoko tradizioari kasu egiten badeutsagu, Polixena izeneko printzesaren eskuetara heldu zan lehenengo irudia. Errege-koroia buruan, ezkerreko eskuan munduaren ezaugarria dan esfera eta eskumako eskua bedeinkatzeko jarreran. Zutunik dago eta apain-apain jantzirik. 1620tik 1625era bitartean zan. Pragako Karmeldarrak gorriak ikusten eta une txar-txarrean egozala, printzesa harek, barruko deiak eraginda eta fraideen egoera arinduririk, irudi ha emon eutsen, haren laguntzaz gauzak hobetuko ziralakoan. Halan jazo ei zan. Zirilo izeneko karmeldar bat izan zan, Pragako Jesus Umearen debozioa zabaltzen buru eta bihotz jardun ebana. Honek, irudiaren aurrean otoitz eta otoitz ziharduala, Umeagandik berba honeek entzun zituala begitandu jakon: “Nitaz erruki izan eta erruki izango natxatzue. Zenbat eta gehiago goratzen nozuen, hainbat gehiago lagunduko deutsuet”. Pragako Jesus Umeak gauza miragarri asko egiten ei zituan eta harenganako maitasuna eta haren ospea munduan zehar zabaldu ei ziran, karmeldarren bidez batez be.

Zerikusi handia izan eban zabalkunde horretan Pio X.a Aita Santuak 1913an “Significat Nobis” Brebearen bidez Ordenako Jeneralari Pragako Jesus Umearen kofradiak munduan eraikitzeke baimena emon izanak. “Europar Pragako santutegiarekin batera ospe handia izan du 1908.ean Haur Jainkoari eskainitako Arenzanoko (Italia) santutegiak. 1930.ean Pragako Ume Jesusen kofradiak mundu zabalean zehar 2.000.000 kide zituen. Gaur egun ere, oraindik, zabalkunde handia duela jarraitzen du *Il Messaggero del S. Bambino Gesù di Praga* aldizkaria argitaratzen delarik”⁵

Pragako Jesus Umearen jaia handikiro ospatzen zan Karmeldarren artean, ikastetxe txikietan batez be. Epifania (Erre-

⁵ Ibid. (394. or.)

gen) osteko bigarren domeka zan ospakizun haretarako hautatua, hau da, Jesusen Izen Santuaren eguna.

Markina-Xemeinen Pragako Jesus Umearen debozioa aitutzen danean, A. Zezilio be aitatu beharra dago ezinbestean. A. Zezilio Pragako Jesus Umearen bidez, herriko ume eta gaztetxuen benetak apostolu bihurtu zan. Horregaitik, 1914. urteko maiatzaren 24a data gogoangarria izango da. Egun horretan eregi zan A. Zezilioren ekinbidez, Pragako Jesus Umearen Kofradia Markina-Xemeinen. Harrezkero, umeei egokituriko elizkizun politez gainera, eskoletako maisu-maistren laguntzaz etab. kultura ekintzak be egin ohi ziran, jardunaldi literarioak, musika eta kantaldiak...

Kofradiaren sorreraz gainera, badira aitatu beharreko beste jazoera bi Pragako Jesus Umearen Markina-Xemeingo historia-txuan, biak A. Zezilioren egunetan eta honek bultzaturik gauzaturikoak: Goiko Portaleko iturriko irudia eta Karmeldarren elizako aldare barria. Bataren eta bestearen gorabehera eta zertzeladak aitatuko ditut ondorengo lerroetan:

1921ean, markina-Xemeindarren gogoa eta Pragako Jesus Umeaganako debozioa aintzat harturik, haren irudi bat Goiko Portaleko iturriaren harrizko zutabe gainean ezarri nahi izan eban A. Zeziliok. Asmo horretan ziharduan buru eta bihotz. Probintzialari adierazi eta honek poz-pozik onartu ostean, Juan Mugartegi herriko alkate zala, eskabidea egin eutsan Udalari.

Udalaren baimena lortu ondoren, Roman Goikoetxea artistaren esku itzi zan irudia egitea. Honek 1923ko uztailaren lehenengoetarako amaitu eban bere lana. Sasoi haretan holako gauzak handikiro egiten ziran, egin be, eta hirurrena ospatu zan orduko hiru sermolari onenatarikoak deituz. Honeek A. Tirso, A. Augusto eta A. Florentzio izan ziran. Reig kardinala, Espainiako gotzainen burua eta orduko hainbat pertsonaia be gonbidatu ziran. Jarduera erlijioso-kulturalaz jantzirik egin zan ospakizuna. A. Zezilio kofradiaren zuzendariaren ondoan, Luziano Alkorta eta Maria de Costa agertzen ziran buru. Markina-Xemeinen *Karmengo Iturria* esaten jako.

1928ko uztailearen 29an inauguratu zan Karmeldarren eliza-ko Pragako Jesus Umearen aldare barria. Iturri gaineko irudia egin eban artista berak egin eban hau be: Roman Goikoetxeak. 1991n, komentu honen fundazioko 3. mendeurrena zala eta, kendu zan aldare hori, baina Pragako Jesus Umearen irudia Santa Teresatxuren erretaularen behealdean ezarri zan.

Jarduera erlijioso-kulturalak txikiakin

A. Zezilioren ondoren A. Migel Maria izan zan Kofradiaren zuzendari. Aurreko lorratzari jarraitzen ahaleginduko zan, harek marka sendoa itzi eban-eta. Hilero arratsaldeko elizkizun eta prozesiorako polito betetzen zan Karmengo eliza. Jakina! umeak protagonista eta amak atzetxuan, txikiak bistatik galdu barik. Anaia Juan Josek janzten zituan sakristian apain-apain prozesioan irudiaren ondoan joango ziranak. Urteak geroago, Anaia Ignaziok eta azkenik, A. Juantxuk. Koloretsuak eta bizi-biziak izan ohi ziran elizkizun hareek. Gogoan ditudan lehenengo aldi haretako elizkizunak gehienbat gazteleraz ziran, eskoletan be, “Zerutxu” Ikastolan izan ezik, erdera hutsean egiten zalako guztia. A. Migel Maria ahalegindu zan, apurka-apurka, euskera geroago eta gehiago erabiltzen, elizkizuneko kantuetatik hasita: *Kristo gure Errege*. Bestela, erderazko letrak sartu-sartuak egozan, orain irribarretxua eragiten deuskuenak. Hasieran: *A tus plantas, oh Niño de Praga!* Amaieran: *Adiós, dulce Niño, / Adiós, tierno Infante...*

Noizbehinka jai politikak eratu ohi ziran: pilotan ikasten ziharduen ume eta gaztetxuen zesta puntako partidak, Santa Eufemiako jaiak eta abar. Mendiko txango hareetan pilotari ospetsu batzuk be izaten ziran, umeak poztearren... Egun gogogarriak izaten ei ziran.

Jainkoaren eskuetan

Noiz edo noiz okerreko bidea hartu ete dogun larritzen hasi ohi gara. Alboko bidea, alde batera itzi doguna, haxe ez ete

zan bide ona, zorionaren bidea, guri jagokuna edota gureztat betidanik markatua zana. Argi dagoanez, bizitzako bidez dihardut eta ez bestelakoaz. 1960ko hamarkadatik 1980kora arte, asko aldendu ziran erlijioso-bizitzatik. Ia multzoka aldendu zirala esango neuke, haize indartsu batek jota legez. Abadetza- ren lilura galdua eben, itxura danez. Eder jaken eta eskuragarri zoriona iragartzen eban laiko-bizitza. Izan be, ederra da fami- liako bizitza, laikoei jagoken baratze joria. Vatikanoko II. Kon- tzilio Ekumenikoak gauza zoragarriak esaten ditu laikoei bu- ruz. Toki askotan aitatzen ditu, baina batez be dekretu oso bat dauka laikoei eskainia: “Laikoen Apostolutzari buruzko Dekre- tua” (*Apostolicam actuositatem*) eta “Eliza Gaurko Munduan Konstituzioa” (*Gaudium et spes*) izenekoan be txitean-pitean ageri dira laikoak. Ez, ez dira bigarren mailako kristinauak, Kontzilio aurretik behin baino sarriago esaten zanez. Beraz, er- lijioso-bizitza edota abadetza izten eben askok eta askok euren lekuaren bila eta fededun legez hobe beharrez egin ohi eben.

Beste asko, marxismo-leninismoak astindurik, une haretan indartsu zebiltzan ideien zurrunbiloan sartu ziran edota inguru horretan mugitzen ziran lagunen esanera makurtu. Agnostizis- moaren urteak zirala esan daiteke, eta, ez dakit bolada hori honezkero igaroa dan... Txitean-pitean aurkitzen ziran erlijioso ohiak edo abade ohiak. Lehenago sarri entzuten zan *sacerdos in eternum* (abadea betiko) esaldia nekez entzungo da gerora. Esaldi hori batez be egintzaz edo bizitzaz indargabetu nahi za- la zirudian.

Ni lehengo lekuan geratu nintzan, pozik geratu be. Geratu nintzan ala norbaitek eutsi eustan biziera haretan? Joan ziranak nahiz geratu ginanak Jainkoaren eskuetan gagozala esango neuke. Guztia da grazia eta lehen eutsi eustana orain be eusle maitagarri dot eten barik.

Haize indartsuak, ekaitzak ugari izan ohi dira. Lehen izan di- ra eta, barealdian gagozanean uste izan ez arren, barriri be izan leitekez. Baina grazia indartsuagoa da. Behin txalupan joiazala

ekaitza sortu zan eta Apostoluak deiadarka esnatu eben Jesus, esanez: *–Jauna, salbatu gagizuz, galduak gara-eta*. Eta Jaunak erantzun: *–Zeren bildur zarie, sinesmen moteleko gizonok?* Jainkoa geurekin dogu; ez, guk eskaturiko gutzia emoteko. Beharbada, guk ulertzen ez dogun eran emoten daki; gurutzea ez deusku kenduko geure bizitzatik, bere bizitzatik be ez eban kendu-eta, baina maitasunak gurutzea pozik besarkartzea dakar, honen ondorio zoriontsu eta berpizkundearen zain. Jaunak entzungor egiten dauala dirudi, egunero atsekabea, gurutzea, kentzeko miraria eskatzen deusagunean, baina ulertzen ez badogu be, beti dihardu maitasunez eta gure onerako. Aingeru Guardakoak ezartzen deuskuz ondoan behar-behar dogun uean.

Giro honetan sentimendu onak sumatzen ditugu, geroari barretasunez begiratzeko zera... *Expectantes beatam spem et ad-ventum Domini* (Itxaropen zoriontsua eta Jaunaren etorrera itxaroten). Latinezko esaldi hori egoan idatzirik letra handiz Karmengo ortuko hilerriaren sarreran. Orain Frai Bartolome Plaza dana komentuko ortua zanean, karmeldarren hilak lurperatzeko ermita antzeko eraikina egoan, ingurua ezpelezko hesiz eta lorez apaindua eukana. Karmeldarren kanposantu zeregina betetzen eban ermitatxuak. Atzean altzifre ilun zarratua eukan zerura begira, txorien paradisua zana. Hortik metro eta erdi ingurura, ortuko hormak kantoia egiten eban txokoan, banbu kanaberak eta pixka bat aurrerago, ermitatxuaren alboan, pikondo eder bi. Udagoiengan, neguko lotara orduko eskularruak lurrean, heriotzaren irudiz ikusi ohi neban urtero, baina hurrengo udabarrian hasiko zan berpizkundera iragartzen.

Gauza batzuk agertu nahirik ekin deusat lantxu honi. Baina ez dot barruko zertzelada zehatzetan sartu nahi, honeek haizetara ateratzean, usain ona galdu ohi dabe-eta. Sentimenduen hari finen fruituak berben moldeetara ezin ekarritzkoak dira edota lotsaren tolestura azpian ezkututzen dira betiko.

Luis Baraiazarra Txertudi